

_kontra

aialardea.eus



Irati
Maraion
ITZULTZAILEA

_Leihotik

Quincailerie

Jose Miguel Tirapu AEROMODELISTA “Tamaina garrantzitsua da aeromodelismoan, hasiberria zarenean batez ere”

JOSE MIGUEL TIRAPU (Bilbo, 1957) “Alas de Orduña” aeromodelismo klubeko lehendakaria da. Kluben arteko topaketa egingo dute ekainaren 13an, Delikan duten zelaian.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Zer dauka Urduñak aeromodelismoari begira berezi egiten duena?

Lekua ederra da. Oso zaila da prezio eskuragarri batean lortzea lege-baldintza guztiak betetzen dituen zelai bat (hirigune hurbilenetik gutxienez 500 metro-ra egotea...), eta hau eskura genuen.

Zergatik aeromodelismoa?

Nik ez dut uste gure zaletasunak

hautatzen ditugunik, zaletasunek gu hautatzen gaituztela baizik. Zergatik ditudan gogoko hegazkinak? Ez nuke jakingo esaten zergatik. Horrela da, besterik gabe. Aeromodelismoak badu zer bait berezia: diseinatzeko edo eraikitze orduan askatasuna ematen dizula, “benetako hegazkinekin” izango ez zenukeen askatasun bat.

Tamaina garrantzitsua da aeromodelismoan?

Bai, hasiberria zarenean batez ere. Hegazkin handiak egonkorragoak direlako. Kontrolatzeko

errazagoa da, paradoxikoa dirudien arren.

Ohikoak dira istripuak aeromodelismoan?

Ez dut oroitzen pertsonen kalte fisikoak eragin dizkien istripurik. Buruarekin jokatzu gero, oso zaletasun segurua da hau.

Baina istripu ikusgarriren bat edo beste bizi izan dugu, bai. Hemen bizi izan dudun ikusgarriena bi hegazkin elektrikoren artekoa izan zen: bata bestearen azpitik igarotzea zuen aurreikusia, baina parez parez egin zuten talka. Egur zatiz osatutako hodei bat sortu zen bat-batean. Halakoak ikustea oso dibertigarria da, hegazkinen jabeentzako salbu, noski.

ko hegazkina). Baita hainbat semi-maketa ere (hobeto hegan egin dezaten jatorrizko hegazkinarekiko aldaketa batzuk dituztenak). Bukatzeko, inolako hegazkinen kopia ez diren aeromodeloak daude.

Klubeko hegazkin gehienak elektrikoak dira, nahiz eta badauden leherketazko motorrarekin doazenak ere.

Helduentzako jostailuak dira aeromodeloak?

Zaletasun hau zaharren hobby bat dela esan daiteke.

Gazteak dena eginda jasotzeraren ohituak daude. Zaletasun hau guztiz kontrakoa da, benetako den zer bait maneiatu behar duzulako, apurtu daitekeen zer bait.

Meteorologia, elektronika, aerodinamika, materialen erresistentzia... ikasi behar duzu. Kostata ikusten da jende gaztea halako klubetan. Hogeita hamar urtetik gorakoak gara gehienak. Eta pena bat da hori, imajinazioa zein eskuen abildadea indartzeko estimulu oso sendoa delako.

Zer nolako hegazkin modeloak dituzue klubeko kideek?

Badaude zenbait maketa (jatorrizko hegazkinaren ezaugarriak errespetatzen dituen eskalaz-

Zu beroan izan nintzen aurreko asteburuan. Lasai, ez zaituztet-eta aspertu nahi hango larre berdeak eguzkipean zein ederrak diren esanez. Gainera, udaberri bete-betean hara joatea ez da ez oso ideia ona gramineoi alergia dien batentzat. Hango paisaia bukolikoak mehatxu bilakatzen dira alergiko gaixoontzat. Atharratze inguruko mendi bi igotzea zen asmoa. Herriko sarreran utzi gintuen busak, eta plaza zeharkatuta aldapan gora hasi ginela hara zer esan zigun Arrasateko lagun batek han zegoen burdindegi baten paretik igarotzean: anai-arrebek ohitura zutela urtero Irati aldera joateko neguan eta beti gelditzen zirela Atharratzen, baratzerako katiuskak erostera burdindegi hartan. Hegoaldean saltzen dituztenak baino hobek omen dira, aizue! Mendan gora, beraz, zera pentsatu nuen: ekin-tza hark, katiuskak han erosteak, bazuela karga sinboliko handia nazio ikuspegiaren aldetik. Batzuek udako etxea erosten dute Kantabrian; besteek diru apur bat uzten dute Atharratzeko burdindegian. Norberak pentsa dezala zer multzotan egon nahi duen eta nori eman nahi dion dirua. Bitartean izan untza!

